



PONYO

ITSASLABARREAN

Hayao Miyazaki, Japon, 2008.



FITXA TEKNIKA

Jatorrizko izenburua: *Gake no ue no Ponyo.*

Herrialdea: Japon.

Urtea: 2008.

Zuzendaria eta Gidoia: Hayao Miyazaki.

Musika: Joe Hisaishi.

Argazkia: Animazio, Atsushi Okui.

Iraupena: 100 min.

ZineuskARA

G I Z A R T E A N



Irakasleak

2025 - 2026

Testuak: Irudi Biziak.

Argitalpena: IRUDI BIZIAK



Programa
honen
ideia
eta garapena
Irudi Biziak®- enak
dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Filmaren inguruan

SINOPSIA:

Sosuke itsasora begira dagoen labar batean bizi den mutiko alaia da. Goiz batean, burua marmeladazko pote batean sartuta duen koloretako arrain batekin egingo du topo. Sosukek askatzen lagunduko dio eta elkarren arteko lilura sortuko da. Hala ere, arrainaren aitak, garai batean gizaki izan zen aztiak, berarekin itsasora itzultzera behartuko du.

PERTSONAIAK:

- **PONYO:** Fujimotoen alaba den printzesa arrain bat da. Naturala, hiperaktiboa, magikoa, dibertigarria...
- **SOSUKE:** Lisa amarekin bizi den bost urteko mutikoa. Ponyo aurkitzen eta zaintzen duen mutiko bihotz onekoa.
- **LISA:** Emakume indartsua eta independentea da, zaharren egoitza batean lan egiten duena.
- **FUJIMOTO:** Ponyoren aita, ez du nahi Ponyo gizaki bihurtzea, gizakiak gorroto baititu.
- **KOICHI:** Itsasoan denbora luzea ematen duen itsasontziko kapitaina da.



- **AMMAMARE:** Ponyoren ama. Botere paregabeko itsas jainkosa da, egoera baretzen eta itsasora bakea itzultzen jakingo du.
- **EGOITZAKO ANDREAK:** Lisak lan egiten duen egoitzan bizi dira. Bizitzaren jakituria eta esperientzia irudikatzen dute, baita desberdina dena onartzeko gaitasuna ere.

Niri Ponyo den bezalakoa gustatzen zait... Arrain, gizaki edo nahasketa izan

Hautzarotik adiskidetasunak duen garrantzia ikusten dugu filmean. **Adiskidetasuna ezinbestekoa da gizakiaren garapen sozial eta emozional** egoki baterako eta gure bizitzaren etapa ezberdinetan modu ezberdinetan bizi dugu eta modu ezberdinetan eragiten du gure garapenean. Hautzaroko adiskidetasunak funtsezkoak dira garapen emozionalerako, emozioak aitortzen eta adierazten, enpatia garatzen eta elkarri laguntza ematen irakasten baitiete haurrei. Harreman horiek emozioak erregulatzen ikasten laguntzen diete haurrei, alaitasun, etsipen eta gatazkak konpontzeko esperientzia partekatuen bidez. Hautzaroon lagun positiborik ez izateak edo **harreman toxikoak** izateak eragina izan dezake garapen emozionalean, eta horrek **zailtasunak eragin ditzake adierazpen emozionalean, konfiantzan eta autoestimuan**, eta horrek adimen osasunean arazoak ekar ditzake bizitzan aurrerago.

Beraz, esan dezakegu, adiskidetasuna dela haur batek ikas dezakeen balio garrantzitsuenetako bat. Horren bidez, haurrek **loturak eta harremanak** ezartzen baitituzte, **emozionalki eta sozialki garatzen** laguntzeko. Hautzaroko adiskidetasuna funtsezko esperientzia da, lagunak laguntza-dibertimendu- eta ikaskuntza-iturri baitira. Lagunak dira haurren lehen jolaskideak, familiarik kanpo, eta, beraz, haien **bizitzaren funtsezko zati bat** dira. Jolas eta jarduera partekatuen bidez, haurrek beste batzuekin harremanak izaten, partekatzen, negoziatzen eta gatazkak konpontzen ikasten baitute. Gainera, lagunak **laguntza emozionalaren iturri** dira haurrentzat, bereziki une zailetan.

Lotura afektiboak funtsezkoak dira adiskidetasunerako, haurrei aukera ematen baitiete beren pentsamenduak eta

sentimenduak lagunekin partekatzean seguru sentitzeko. Haur batek bere lagunak entzun eta ulertzen duela dakienean, erosoago sentitzen da berarekin hitz egiten, eta harreman sakonagoa ezar dezake. Gainera, lotura afektiboek gaitasun garrantzitsuak garatzen laguntzen diete haurrei, hala nola **gatazkak konpontzea**, lehen aipatu bezala, eta besteen sentimenduak ulertzea, hau da, **enpatia garatzea**. Lagunek harreman ona dutenean, **elkarrekin lan egin** dezakete arazoak konpontzeko eta une zailetan **elkarri laguntzeko**.

Baina zer da adiskidetasun on bat? Haurrek ulertu behar dute adiskidetasuna **errespetuan, enpatian eta elkar maitatzean oinarritu** behar dela. Komunikazioa, zintzotasuna, leialtasuna eta elkarri laguntzea ezinbestekoak dira adiskidetasun bat osasuntsua, sendoa eta iraunkorra izateko.

Filmean Ponyo eta Sosukeren arteko adiskidetasunean ezaugarri hauetako gehienak ikus ditzakegu, bata besteari beraiei munduaz elkar irakasten dutenean eta biak elkarlaguntzen dutenean: Lisaren bila joan behar dutenean, Ponyo gizaki izan nahi duenean, kristalezko potoaren barrutik askatzen duenean, elkarrekin jolasten dutenean... Baina gauza guzti hauetaz gain, benetako adiskidetasun baten ezaugarri garrantzitsuenetako bat ere ikus dezakegu filmean: **laguna den bezalakoa onartzea**. Ponyo gizaki izatea lortu ahal izateko, Sosukeren adiskidetasuna/maitasuna benetakoa dela frogatzeko, Sosukeri Ponyo den bezalakoa onartu behar duela esaten diote eta Sosukeren erantzuna benetako lagun baten erantzuna da: *"Niri Ponyo den bezalakoa gustatzen zait, arrain, gizaki edo nahasketa izan"*.

Hau nazka, bai ur zikinak



Gure munduaren %70 ozeanoek estaltzen dute eta itsasoek basoek bezain beste karbono xurgatzen dute. Bi datu hauek ozeano eta itsasoen garrantzia erakusten digute. Itsasoak bizi iturri dira, haiek gabe bizitza gure planetan ezinezkoa litzateke, tenperatura, airearen kalitatea, klima... bere eraginpean daude, horregatik ozeano eta itsasoak zaintzea ezinbestekoa da.

Itsasoa elikatze-iturri bat baino gehiago da. Fitoplanktonak eta itsasoan bizi diren gainerako landareek arnasten dugun oxigenoaren % 50 eta % 70 artean ematen digute. Oxigenoa emateaz gain, karbono dioxidoaren biltegi bat da, itsasoko urak gas hori oso azkar disolbatzen baitu, eta, horrela, egungo airean karbono dioxido gehiegi egoteari aurre egiteko iturri natural garrantzitsua da, basoekin batera.

Gizakiaren aktibitateak itsasoan eragin handia dauka, modu ezberdinetan eragiten dugu itsasoengan, hiru direlarik nagusiak: kutsadura, zaborra eta arrantza. **Arrantzari dagokionez, hauek dira kalte nabarmenenak: Baliabide biologikoen murrizketa; Bazterkinak eta nahi gabeko harrapaketak; Itsas hondoko kalteak; Kutsadura eta plastikoak; Aldaketa klimatikoa eta energia-eraginkortasuna.**

Kutsadurari dagokionez, hauek dira kalte gehien eragiten duten hiru prozesuak: Ozeanoen azidifikazioa, atmosferara isurtzen dugun CO₂ak eragindakoa; Berotze globala, uraren tenperatura igotzearen ondorio; Kutsatzaileen deposizioa, airean dauden partikulak itsasora erortzean ematen dena.

Eta azkenik, filmean ikusi dezakegun eragina, zaborra. Filmean itsas hondoa eta itsasertza ikusten ditugunean, gizakiek botatako zabor guztia ikusi daiteke (gauza handienetatik, txikienetara), Ponyo eta Sosuke elkar ezagutzen duten egunean bezala, non Ponyo kristalezko poto batean harrapatuta aurkitzen duen Sosukek. Zikinkeria guzti hau eta itsasoa ez errespetuz tratatzea dira ere, Fujimoto gizakiekin hain haserre egotearen arrazoiak eta bere alaba gizakia bilakatzea nahi ez izatearenak.



Gizakiak isuritako zaborretatik, plastikoa da arazorik larriena. **"Itsasoko zaborra da arazo nagusietako bat itsas ekosistemen kontserbaziorako; bereziki, erabilera bakarreko plastikoen kutsadura. Europako Kontseiluaren datuen arabera, itsas zaborren ia erdiak erabilera bakarreko plastikoak dira (%49), %6 inguru bestelako plastikoak, laurdena baino gehixeago arrantza ekipoen hondakinak (%27), eta bostena bestelako zaborrak (%18) (Gorka Berasategi, Berria 2024, Ezkutuko zaborraren mapa)"**

Horregatik kontzientzia hartu behar dugu erabilera bakarreko plastikoen erabilera murriztu behar dugula, gure esku dagoen konponbideetako bat horixe baita, birziklatzearekin eta zaborraren kudeaketa egokiarekin batera. Bestalde, arrain jasagarria kontsumitzea dugu arrantzaren eragina murrizteko gure esku dagoen beste ekintzetako bat. Ikasleei ulertarazi behar diegu, gauza guztietan bezala, bakoitzak bere neurrian gauzak egin ditzakeela eta denek ahal dugun heinean laguntzekotan, arazoa konpondu edo leuntzeko geroz eta aukera gehiago edukiko ditugula.

Honen harira, eta itsasoarengan dugun eraginarekin lotuta, filmean itsasoaren indarra ekar ditzakeen hondamendiak ikus daitezke, filmaren amaieran agertzen den uholdean islatuta.

Gai honetan sakontzeko Mater proiektua ezagutzera gonbidatzen zaituztegu. Proiektua bere baitan ezagutzea oso interesgarria litzateke, baina egia da Pasaiairaino hurbiltzea ez dela guztiontzako aukera erraza. Horregatik webgunea bisitatzeaz gain, Bizkaiko foru aldundiak eskuragarri jartzen dituen material didaktikoak lortzeko estekak uzten dizkizuegu. Horrela, gaian sakondu nahi izan ez gero, bertan dauden ariketak eta jarduerak aprobetxatzeko aukera izan dezazuen.

https://www.bizkaia.eus/documents/880311/9767048/Itsas_Kulturan_Murgilduz-Irakaslea.pdf
https://www.bizkaia.eus/documents/880311/9767048/Itsas_Kulturan_Murgilduz-Ikaskeraren_Bitakora.pdf

Zu ez kezkatu txiki, nik zainduko zaitut

Filmean zehar, **ontasun-erakutsi ezberdinak** ikusten ditugu pertsonaia ezberdinen bitartez. Gure bi protagonista nagusiek, Ponyo eta Sosuke, eta Lisak, Sosukeren ama, erakusten dituzte argienak. Lisaren aldetik, Ponyo pentsatu gabe bere etxe aurrean dagoenean jasotzen duenean eta bere etxean babestu eta jaten ematen dionean, edota, egoitzako nagusiei laguntzera joaten denean, berarentzako arriskua alde batera utziz. Sosukek ere nagusiekiko adeitasun jokabideak erakusten ditu eta Ponyo hasieran kristalezko potoan aurkitzen duenean askatu eta zaindu egin nahi du bitan pentsatu gabe. Eta azkenik, Ponyo. Beti laguntzeko prest azaltzen da hasieratik (Sosukeren behatza sendatuz, Lisa argindarrarekin lagunduz, umea sendatuz...), horretarako askotan botereak erabili behar dituelarik eta honek asko ahuldu eta nekatzen du. Hala ere, laguntzen jarraitzea erabakitzen du behin eta berriro.

Ontasunak, pertsona zorionsuagoak eta osasuntsuagoak egiten gaitu. Jarrera ekonomiko eta pragmatikoena da, susmo, ardura, erresumin, manipulazio eta erreakzioak defentsiban jartzen dugun energia aurrezten laguntzen digulako. Atzean utzi behar ditugu gaur egungo gizarteak ontasunari ezartzen dizkion ezaugarriak, ontasuna ahultasunarekin, adimen faltarekin eta manipulatzeko erraztasunarekin parekatzen dituzten ezaugarriak. Laburbilduz, **ontasuna ongia egiteko desira izatea eta desira hori ekintzan bihurtzean datza eta umei erakutsi beharreko ezinbesteko balioa.**

Ontasunaren onurak ugariak dira; ez dugu ahaztu behar, kultura, erlijio eta filosofia ugarien esakunea, **zuri egitea nahi ez duzuna besteei ez egitea** dela. Baina nola izan gaitezke "onagoak"? Stefan Einhorn, institutu irakasle eta doktore suediarrek, "Ontasuna sustatzearen artea" liburuan, **eskuzabaltasuna** sustatzeaz, **enpatiaz, arduraz, gatazkak ekiditeaz, adeitsua** izateaz eta besteei **entzuteaz** hitz egiten digu. Guretzat eredu onak direla uste dugunak imitatzeari ez beldur izatea eta besteentzako eredu izatea. Eta beste aholku bat: oso garrantzitsua da **barkatzea**. Gure protagonistek ezaugarri horietako asko erakusten dituzte filmean eta garrantzitsua da txikitatik haien garrantziak eta onurak ikusi, ikasi eta barneratzea.

Liburua, ongia egiteko arrazoi ezberdinak emanez amaitzen da:

- Hobe sentitzen garelako;
- Atseginagoa delako ongi sentitzen den jendearekin inguratua egotea;
- Guretzat abantailak sortzen ditugu;
- Irizpide etikoen bidez lan egiten duen gizarteak hobe funtzionatzen duelako;
- Eta azken batean, mundu hobe baterako, gure ekarpena egiten dugulako.

Euskara landuz

Filmean **janariak** garrantzi handia dauka, Ponyo gizakia izateko erakartzen duen gauzetako bat da eta Lisak eta Sosukek ere garrantzi handia ematen diote eszena ezberdinetan. Horregatik, umeekin janariarekin lotutako **hitz-errosko bat** egitea proposatzen dugu. Hona hemen erantzunak:

A: Arraina
B: Babarrunak
D: Dilistak
E: Eztia
F: Fruitujale
G: Garia

H: Hegaluzea
I: Intxaurreak
J: Japonia
K: Kuia
L: Lekak
M: Mahatsa

N: Nekazari
O: Ogitarateko
P: Pastel
R: Ramen
S: Sagarra
T: Taloa

U: Urdaiazpiko
X: Xerra
Z: Zukua.

